

KONTU IKUSKATZEEN PLANA, 2017

Egitekoak diren ekonomia- eta finantza-kontrolako eta kudeaketaren kontrolako jardunak kontu ikuskatzeen urteko planean sartuko dira, abenduaren 18ko 56/92 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia Erregimen eta Aurrekontuei buruzkoak, eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzkoak xedatutakoa betez. Plan horretan jasoko dira bai ekonomia- eta finantza-kontrolako jardunak eta kudeaketaren kontrolako jardunak, nahiz kontrol organoan jatorria dutenak, nahiz kontrolatuak izateko gai diren erakundeetan jatorria dutenak.

2017 ekitaldirako kontu ikuskatzeen plana urtean zehar egitekoak diren kontu ikuskatzeen zerrenda xehatu bat da, eta, bistan denez, haietako asko behin baino gehiagotan egitekoak dira, zeintzuk diren Arabako Foru Aldundiaren mendekoak izanik erakunde organiko beregainak diren erakunde autonomo, foru fundazio eta enpresa publikoak.

Printzipioz, plan horren oinarrian ez dago inolako arrisku kalkulurik; aitzitik, araudia betez, ohiko egiteko bat du helburu, Kontuhartzailtza eta Kontrol Zerbitzuaren fiskalizazio eginkizunaren barruan.

Hona hemen zerrenda batean xehaturik datorren ekitaldian kontuak ikuskatu behar zaizkien erakundeak:

1. FORU ERAKUNDE AUTONOMO ETA FUNDAZIOAK

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

Gazteriaren Foru Erakundea

Arabako Foru Suhiltzaileak

Santa Maria Katedrala Fundazioa.

Añanako Gatz Harana Fundazioa

KIROLARABA Fundazioa



2. FORU ENPRESA PUBLIKOAK

Araba Garapen Agentzia SAU.

ARABAKO KALKULUGUNEA SA

Naturgolf SA

Aldalur Araba SL

Indesa 2010, S.L.

Arabarri - Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate
Anonimoa, SA.

Arabako Lanak SA (Likidatzen)

(Arabako Lanak, SA likidazioan dago, eta, beraz, urteko kontuak eta/edo azken balantzea eta likidazio txostena ikuskatuko dira, likidazioa noiz amaitzen den).

3. PROPOSATU DIREN KANPOKO ENTITATEAK.

Abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren araubide ekonomiko eta aurrekontuari buruzkoak, honela dio 121. artikuluan: *“Modu orokorrean edo partikularrean jarri daitezkeen eran, kontrol ekonomiko-finantziar eta kudeaketarena edozein erakunde edo enpresa publiko edo pribaturen gain eta partikularren gain Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Arrunten edo elkarteko fondoek jasotako subentzioen edo laguntzen edozein motagatik erabili ahal izango da. Kontrola laguntzen erabilera zuzenari eta zertarakoari buruzkoa izango da.”*

Bestalde, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, honela dio 47. artikuluan: *“Dirulaguntzen finantza kontrola Foru Administrazioak eta harekin lotutako edo berari atxikitako erakunde eta entitateek Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrean edo Europar Batasunaren funtsen kargura ematen dituzten dirulaguntzetako bat jasotzen duten pertsona onuradunei eta, behar denean, entitate laguntzaileei finantza kontrola aplikatuko zaie.”*



Azkenik, azken ekitaldietako kontu ikuskatzeen planetan jasotzen ari den bezala, *“ekonomia kontrola objektuaren unibertsaltasunaren printzipioaren pean gauzatu behar da, zeinaren arabera foru sektore publikoak gauzatzen duen ekonomia jarduera oro da era horretan kontrolatua izateko gai, eta kontrola gauzatu behar da noiz ere amaitzen baita denbora ziklo jakin bat edo subjektuarentzat, haren izaeraren arabera, ekonomikoki oso axolazkoa den ziklo bat.”*

Kontuan hartuz aurreko baldintza horiek, eta aldez aurretik ziurtzat joz aurreko ekitaldietakoen antzera aurrekontuak izango dituela muga batzuk, 2016 ekitaldian Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontuen kontura dirulaguntzak jaso dituzten entitate onuradunen artean entitate jakin batzuk hautatu dira, eta ondoren zehazki aipatzen dira, bai eta haiek hautatzeko zer irizpideri jarraitu zaion ere.

Hautaketa irizpideak:

1. Lau entitate, “ARABAN EKINTZAILE IZATEKO ETA ENPRESA BERRIAK SORTZEKO 2016 EKITALDIRAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAn (EKIN ARABAN) dirulaguntzaren baten onuradun izan direnak, dirulaguntzarik handienak jaso dituztenen artean:

MENDI METAL INNOVATION GROUP, S.L. (B-1.540.699)

OPTIMUS 3D, S.L. (B-1.520.766)

BRIZUELA SAINZ LAURA (44.674.846)

GEROA DIAGNOSTICS, S.L. (B-1.538.867)

2. Lau entitate, sektore publikotik kanpokoak, azken bost urteetan kontu ikuskatzeen planetan sartu ez direnak, AFaren aurrekontuaren kontura 50.000 eurotik gorako dirulaguntzak jaso dituztenak:

MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBERA OFIZIALA (Q-173.001)

ABRA-Arabako Errioxako Upeltegien Elkarte (G-1.107.580)

ARABA CAZADORES GESTIÓN ELKARTEA (G-1.456.524)



EHIZAREN NATUR ONDAREAREN DEFENTSA ELKARTEA (G-1.516.111)

3. Bi entitate, GOFeren aurrekontuaren kontura dirulaguntzak jaso dituztenak eta azken bost ekitaldietan ez direnak kontuak ikuskatzeko planetan sartu:

ERITASUN KARDIOBASKULARREN ELKARTEA .- BIHOTZAK MUGARIK GABE (G-1.394.055)

ARABAREN ETXEA ELKARTEA (G-2.04.257)

(Entitate horiek guztiek GOFerekin batera gauzatzen dute beren jarduera, dela aurrekontuaren 2. kapituluaren erregistratzen diren hitzarmenen bidez, dela 4. eta 7. kapituluaren erregistratutako dirulaguntzen bidez, eta, beraz, unibertsaltasun printzipio lehen azaldua dela-eta, Arabako Foru Aldundiarentzat gauzatutako ekonomia jarduera guztia izango litzateke kontu ikuskatzearen gai”).

4. Euskara, Kultura eta Kirol Sailak proposatutako bi **kirol federazio**:

ARABAKO SASKIBALOI FEDERAZIOA (G-1.032.960)

ARABAKO TENIS FEDERAZIOA (G-1.039.726)